

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozioa aurrera eramateko ezinbestekoa izango da lokal bat edukitzea, zeren eta gure ibilgailu espeziala gorde beharko dugu eta horretaz gain gure janari eta edariak toki egoki batean gorde ahal izango ditugu.

Bestalde, gure lokalak janari eta edari nahikoak eduki behar ditu, egun batetik bestera eta egun berean produktirik gabe ez geratzeko. Gainera lokalean janariak eta edariak hotzgailetan gordeko ditugu gure bezeroei baldinitza onenetan saltzeko.

Ahala ere, hau dena aurrera eramateko ezinbestekoa da pertsona bat guzti hontaz arduratzea, eta nola bezeroarekin harreman ona dugun, beste produkturen bat eskatzen badigute pertsona honekin harremanetan jarriko gara produktu hori ahalik eta azkarren lortzeko eta horrela bezeroari eskaintzeko.

Gure eguneroko zereginak hauek izango ziren:

1. Janaria eta edariak erosi.
2. Lokalean gorde.
3. Produktuak ibilgailu espezialean sartu.
4. Hondartzan saldu eta ibilgailua berriz produktuez bete.
5. Eguna bukatzean soberako janari eta edariak gorde lokalean.
6. Lokala janari eta edariez bete berriz ere.